



ZERAINGO UDALA

**BIGARREN OHARRA iii
COVID-19 KORONABIRUSaren ZABALPENA EKIDITEKO
Zeraingo Udalak hartutako neurriak 2020-03-16an.**

Ondorengo informazioa bidaltzen dizuegu herritarrei:

Egoera etengabe aldatuz doa eta horregatik 2020ko martxoaren 13an bidalitako informazioa osatzera dator bigarren ohar hau. Ondorengo neurri berriak hartu ditugu:

- **Herriko frontoia ITXITA egongo da konfinamenduan gauden bitartean.**
- **Pixoihalak botatzeko edukiontzia IREKITA egongo da modu iraunkorren eta bertan pixoihalez gain, gaixo egonez gero, bertan bota beharko dira eskularruak, maskarilak, paperezko mukizapiak eta abar.**



- **Turismo bulegoa ITXITA dago eta zerbitzu turistikoak ETENDA.**
- **Herriko denda ZABALIK dago.**

Ordutegia:

Astelehenetik larunbatera goizez, 10:00 - 13:00

Igandean goizez 10:30-12:30

Herriko dendan MANDIO taberna itxita dagoen bitartean OGIA eta EGUNKARIA erosteko aukera egongo da. Horretarako aldez aurretik eskaera egin beharko da.

Horrez gain arrisku taldeetako herritarrek etxetik ez irteteko, aukera egongo da JANARIA edo MEDIZINAK telefonoz enkargatu eta etxean eskuratzeko. Aipatutako eskaerak egiteko deitu telefono honetara: 649946277

Zerainen, 2020ko martxoaren 16an